



Amarako jai batzordeko kideak.

Bexamelari uko egin dioten kroketa bakarrak dira arrakastatsuenak

Osagai onenekin datoz Amarako jaiak, eta Ixiar Gomez-Cruzado jai batzordeko kideak argi utzi du aurtengo filosofia: auzotar guztientzako topagune izatea. Funtzionatzen duen horri eutsiz, berrikuntza gutxiarekin baina jai giroz lepo pasatuko dituzte jai egunak auzoan.

📍 Nagore Garmendia Artano
📷 Amarako jai batzordea

Hastear dira Amarako jaiak, eta auzoa jai giroako pres-tatzen ari den honetan, Ixiar Gomez-Cruzado jai batzordeko kideak argi dauka zein izan den antolaketako helburu nagusia: auzotar guztientzako jaiak izatea.

Ezaguna den horrek funtzionatzen duenean, hala, errazagoa da asmatzea; pandemiaren ostean parte hartzeak izandako gorakada ikusita, aurtengoan ez dute egitarauan berrikuntza nabar-menik txertatu. «Horrek esan nahi du egiten dugunak funtzionatzen duela», azaldu du Gomez-Cruzadok, eta ildo beretik jarraitzea erabaki dute.

Haurrak, erdigunean

Azken urteetan, jai batzordeak ahalegin berezia egin du haurren egitaraua indartzeko. Horren isla da duela urte gutxi sortu zuten Haurren Eguna, txikiengana bideratua eta ahalik eta jende gehienak parte har dezan pentsatua. Egun hori hilaren 30ean izango da aurtengoa, eta egun osoko eskaintza dakar, 11:00etatik 21:00etara: tailerrak, apar festa, bingoa...

Formatu hori pixkanaka bere lekua hartzen joan da, eta, batzordekideak «oraindik kostatzen dela» onartu duen arren, esfortzu horri esker lortu dute familiaritate ere jaietan gehiago inplikatzeko.

Bexamelik gabeko kroketa

Amarako jaietako hitzordu bereziak da, zalantzarik gabe, Giza Kroketa Txapelketa. Amarako jaien ezaugarri bat. Gomez-Cruzadok kontatu du, ustez, ez dutela beste inon egiten, eta horrek bihurtzen du auzoan are bereziagoa. Dinamika erraza bezain deigarria da: lurrean zerrautsa bota, parte hartzaileak bertan etzan eta bueltak ibiltzen dira, kroketa bihurtzeko asmoz.

Txapelketa erromeriaren atsedendian egiten dute, gaurdi partean. Inprobisazioak pisu handia duela dio batzordekideak; giroarekin berotzen direnak hartzen dute parte. «Amartar petoa sentitzen den horrek badu ohitura parte hartzeko, eta kanpotik datorrena aho zabalik geratzen da», adierazi du.

Erreleboaren erronka

Jai batzordeak 2022aren bueltan izan zuen errelebo aldaketa, eta egungoa talde gaztea dela nabarmendu du kideak. Funtzionamenduari dagokionez, antolakuntza modu honetan banatzen da: bost pertsonaz osatutako talde motor bat, koordinazioaz arduratzen dena, eta «sareak», jardura zehatzak antolatzeaz arduratzen direnak.

Jendea konprometitzea zaila den arren, jardura zehatz bezain beharrezkoetan (esaterako, herri bazkarirako mahaiak muntatu eta desmuntatzen) ematen den laguntza puntuala ezinbestekoa dela gogorarazi du Gomez-Cruzadok. Erreleboa eten ez dadin, batzordea beti dabil dinamikoagoak izango diren formula berriak asmatu eta jende gehiago lotzeko ahaleginean.

Erasorik gabeko jaiak

Parte hartzeko gogoak badagoela ikusita, antolatzailak ez dute ahaztu nahi izan jaien alderdi aldarrikatzaile eta babeslea: gogorarazi nahi izan dute, hala, duela urte batzuk Amarako talde feministak martxan jarritako eraso sexistaren aurkako protokoloak indarrean jarraitzen duela. Gainera, protokolo horrek, iaiztik, jarrera arrazistak ere barne hartzen ditu, garrantzitsua bezain beharrezkoa baita jaietan seguru sentitzea. ●

ASTEAZKENA 29

18:30

Pregoia. Kalejira, buruhandi eta erraldoiarekin.

Jai seguru eta askeen aldeko argazkia.

3Txulo txaranga.

19:00

Danborrada entsegua.

20:30

Txorimalo DJ-a.

OSTEGUNA 30

11:00

Haurrentzako eskulan tailerrak.

12:30

Apar festa.

14:00

Haur bazkaria.

Bazkalostean, bingo musikatua.

15:00

Dominguez mariatxiak, Doña Chepinan.

18:00Kiki, Koko, Moko eta Flax, *Bizi-bizi zirkua*, Arroka plazan.**18:30**

Buruhandiak eta erraldoiak.

19:00

Kontzertua, Bodeguillan: Tartalow Sound System.

19:30

Arima diskofesta.

20:00

Sardina jana.

22:00

Zezensuzkoa, Amarako frontoitik.

Kontzertuak: Herrimin, Zaunka eta MJ Oliba ta Antxo.

OSTIRALA 31

11:00

Herri krosa.

Paella prestaketa.

14:30

Gazte bazkaria.

16:00

Bingo musikatua.

17:00

Xake txapelketa, Kaxilda kanpoan.

Kudrillen jolasak.

18:30

Buruhandiak.

20:00

Ondoezik elektrotxaranga.

Botea.

22:00

Zezensuzkoa.

22:30

Kontzertuak: Txamakos, Sutargi erromeria eta DJ-a. Atsedenetan, takoi lasterketa eta sokasalto.

LARUNBATA 1

10:30

Marmitako txapelketa.

13:30

Marmitako txapelketako sari banaketa.

14:30

Bazkari herrikoia.

15:00

La hija del nopal Dj-a, Doña Chepinan.

17:30

Pala finala, Amarako frontoian.

18:30

Buruhandiak.

**19:00**

Ardo dastaketa, Arroka plazan.

20:00

Danborrada herrikoia.

Urbanen musika.

22:00

Zezensuzkoa.

23:00

3ttu erromeria.

00:30

Giza kroketa txapelketa.

IGANDEA 2

17:00

Mus txapelketa.

Helduentzako antzerkia: Trapu Zaharra, *La última y nos vamos*.**17:30**

Tortilla txapelketa; ostean, sari banaketa.

18:00

Plaza dantzak.

18:30

Buruhandiak.

19:00

Toka.

20:30

Oilasko jana.

21:30

Amara kantuz.

22:00Jaien amaiera: *Gaixua ni*.